

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



## ■ HERNANI JUBILATUAK

### Hitzorduari eutsiko diote 2019an ere

Jubilatu eta pentsionistek beren aldarrikapenak egiten jarraituko dute 2019an ere. Hori dela eta, jakinarazi dute, azkeneko hilabeteetan egin duten bezalaxe, gaurtik aurrera Plazan elkartuko direla astelehenero eguerdiko 12:00etatik aurrera. ■

## ■ HERNANI EMAKUMEENTZAKO JABETZE ESKOLA

# Izenematea irekita, beste sei ikastarotan

Interesa daukanak, gaurtik hasita eman dezake izena 2019ko Emakumeentzako Jabetza Eskolaren barruan antolatu diren jardueretan: 943 33 70 17 zenbakian edo 'berdintasuna@hernani.eus'-en.

GARAI honetan ohikoa den bezala, Hernaniko Udalaren Berdintasun Sailak dagoeneko aurkeztu du Emakumeentzako Jabetza Eskolaren 2019ko udaberriko programa. Denera sei ikastaro izango ditu.

Horieta lau sei hileko honetan hasi eta bukatuko dira: *Gure gorputzaren jabe, Harreman parekideak eta tratu onekoak, Mindfulness edo momentuan presente egotea eta Eskalada tailerra: hasitapena*. Beste biak urte osoko programak dira, baina izena eman daiteke: *Batukada feminista* eta *Munduko emakumeen literatura*.

Horretarako, gaurtik eman daiteke izena: Plaza Feministan, 043 33 70 17 zenbakian edo [berdintasuna@hernani.eus](mailto:berdintasuna@hernani.eus). ■



Feminismo Islamiarraren gala joratu zuten 2018ko udazkeneko Jabetza Eskolaren programaren barruan.

## ■ HERNANI TELEBISTA

### 'El Conquistador', gaurtik

*El Conquistador del Pacífico* saioa estreinatuko dute gaur gaueko 22:30etatik aurrera, eta bertan izango da, behintzat, hernaniar bat. Publikoaren botoei esker, Leire Juanes hernaniarra izango da lehiakideetako bat. ■

## ■ HERNANI KAXKO ELKARTEA

### Tailerra berriro, urte berriarekin

Bihar izango dute urteko aurreneko saioa Estimulazio Musikal Goiztiarra tailerreko kideek. Kaxko Elkarteak antolatzen duen tailerra da, eta asteartero egiten dute saioa, 10:45etatik 11:45etara, Biterin. Debalde da, baina izena eman behar da: [info@musikhazi.com](mailto:info@musikhazi.com) edo 608 19 37 01. ■

## ■ ASTIGARRAGA ZIPOTZA

### Kaldereroetarako eguna, jarrita

Urtea hasi bezala jarri du hitzordua Zipotza elkarteak, Kaldereroen konpartsa kalera ateratzeko: otsailaren 9a. Eguna gordetzeko dei egiten dute. ■

## ■ HERNANI MENDIRIZ MENDI

### Gaztetxoekin irteera, igandean

Iganderako jarri du zita Mendiriz Mendi elkarteak gaztetxoekin *Hernani Ezagutuz* ekimenaren baitan. Latsera joango dira, 09:00etan Biteritik abiatuta. Irteera doan da eta ez da izenik eman behar. ■

## EMAKUMEENTZAKO JABETZE ESKOLA. 2019ko udaberria

● **Gure gorputzaren jabe.** Tailerraren zati teorikoan, gorputzaren anatomia, funtzionamendua eta hormonien bidea landuko dira, besteak beste. Zati praktikoan, aldiz, gorputza sentitzen ikasteko tresnak eskuratuko ditugu hainbat ariketen bitartez; genu jarioentzako baliagarriak diren hipopresiboak ere landuko dira. Otsailaren 14tik apirilaren 11ra, ostegunetan, 17:30etatik 19:00etara. Biterin. Irakaslea: Laida Marco Salaberria. Hizkuntza: euskera. Prezioa: 14 euro.

● **Harreman parekideak eta tratu onekoak.** Saio honen bidez harremanen inguruan hausnartzeko gune bat sortzen saiatuko gara, harreman horiek gure bizitzetan dituzten ondorioak ikusteko eta aldaketa positiborako tresnak bultzatzeko. Urtarrilaren 18tik martxoaren 19ra, ostiraletan, 18:00etatik 20:00etara, Biterin. Irakaslea: Pepa Bojó Ballester. Hizkuntza: gaztelania. Prezioa: 22 euro.

● **Mindfulness edo momentuan presente egotea.** Mindfulness momentuan presente egotea da, norbera berekiko presente, eta ez soilik besteentzako. Une bakoitzean gertatzen ari dena modu egokienean kudeatu ahal izateko tresnak eskaintzen ditu, gure emozioak eta beharrak kontuan hartuz. Mundu frenetiko honetan gure barne eritmoa bertopatzeko aukera eskaintzen digu praktika eta jarrera honek, gu nola gauden sentitzeko eta amasteko tresna bat. Horrez gain, gure errealitatea den bezala ikusten laguntzen digu, eta hortik abiatuta, gure beharrak argiago identifikatzen ditugu. Otsailaren 8tik apirilaren 5era, ostiraletan, 09:15etatik 10:45etara. Irakaslea: Clara Wolfram Perez. Hizkuntza: gaztelania. Prezioa: 12 euro.

● **Eskalada tailerra.** Eskaladan, beste hainbat kiroletan gertatzen den moduan, emakumeen parte-hartzea txikia da; eta praktikatzeko garaian gizonetako laguntza edo dependentzia agerikoa da

kasu gehienetan. Tailer honetan kirol eskaladaren hastapenerako oinarriak emango dira. Irakasleak: Patri Espinar Labian eta Arantxa Arrieta Garces. Maiatzaren 10etik ekainaren 14ra bitarte, ostiraletan, 17:00etatik 20:00etara. Hizkuntza: euskera. Prezioa: 18 euro.

● **Batukada feminista.** Zein da helburua? Hainbat musika-tresna jotzen ikasteaz gain, gozatzea, emakumeon artean harremana izatea, talde-lanean eta elkarrekin ikastea, irudimena lantzea, sortzea, gidaritza hartzea, musikaz disfrutatzea eta gozaratzea, emakumeak eta feministak ikusiak eta entzunak izatea, aldarrikapenak plazaratzeko espazioak okupatu eta erabiltzea... Irakasleak: Arantxa Vicedo Rubio eta Ainara Sarasketa Alberdi. Ostiral hauetan: urtarrilak 11 eta 25; otsailak 8 eta 22; martxoak 8 eta 22; apirilak 5; maiatzak 3 eta 17; ekainak 14; eta festetako irteera. Arratsaldeko

17:30etatik 19:30etara, Langile ikastolako Laubidietan. Prezioa: 22 euro.

● **Munduko emakumeen literatura.** Beste emakume askok garbitu eta sendotu dute gu orain egiten ari garen bidea. Gurekin batera beste hainbat emakume ere antzeko bidean dabilta. Haien pausoak neurtzea eta aprobetxatzea da modurik onena beren esperientziari, gozamenari eta sufrimenduari balioa emateko. Haiek ezagutzen geure burua hobetoxeago ezagutuko dugu. Munduko Emakumeen Literatura amaierarik gabeko bidaia batean murgiltzea da, hainbat herrialdeetako idazleen lanetan murgildu eta euren kezka eta baldintzen leihoretatik begiratzea. Irakaslea: Merte Tranche Iparragirre. Ostegun hauetan: urtarrilak 17, otsailak 7, martxoak 7, apirilak 8, maiatzak 2, ekainak 13. Arratsaldeko 18:30etatik iluntzeko 20:30etara, Plaza Feministan. Prezioa: 12 euro.

**Garayar autobusak**  
Sorgintxulo auzoa, Hernani (Gipuzkoa)  
Tel. 943 55 66 58 Fax. 943 33 12 08  
[mgarayar@autobusesgarayar.es](mailto:mgarayar@autobusesgarayar.es)

**Autobus zerbitzuak**  
Linea erregularrak

•Hernani •Donostia  
•Aiete •Unjola •Andoain

**JOXE MARI**  
EDARITEGIA  
FIDELTASUN TXARTELA

Astelehenetik ostiralera 10 kafe hartuta, 11garrena doan daukazu. Gainera, zure bonoa betetzear, zozketan parte hartuko duzu:

**ASTEBURU BAT DEBAKO AISIA SPAN**

Kale Nagusia, 7  
943 55 00 32

ANTZIOLA, 3  
943 55 17 91  
HERNANI

**ANTZIOLA**  
OKINDEGIA

**TAXIAK:** 943 550093 | **UDALTAINGOA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 ☩ / **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** / **Gauetz:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani)

**EGURALDIA** **GAUR** Behe-lainoak ostarteei gailenduko zaizkie eta euria egin dezake. Egurdirako garbitu, eta eguzkitsu egongo da tarteka. Neguko iburako giroa izango da, bete betean. **Min.2° / Max.7°** **BIHAR** Zerua gero eta lainotuagoa egongo da. Euria egin dezake, batez ere, ilunabarretik aurrera. Temperatura maximoek gora egingo dute. **Min.3° / Max.9°** (euskaime)

## ASTIGARRAGA EH BILDU

# Alkategaiak proposatzeko epea, urtarrilaren 14tik 27rako

Prozesuan parte hartzeko 'elkarrekin.ehbildu.eus' atarian izena eman behar da. Astigartar guztiak parte hartzera animatu ditu EH Bilduk.

2019KO udal hauteskundeetarako zerrenda osatzeko prozesua martxan jarri du Astigarragako EH Bilduk. Horrela, urtarrilaren 14tik 27ra, 2019ko maiatzaren 26an egingo diren udal hauteskundeetan EH Bildu Astigarragaren alkategaiak proposatzeko epea irekiko da.

Alderdiarekin bat egiten duten astigartar guztiak animatu dituzte, «prozesu honetan parte hartu eta bere erabakia emateko».

### Hauteskunde Batzordea, «ia aho batez» onartua

Prozesua martxan jartzeko, abenduaren 14ko asteburuan berretsi zen, %70,96ko parte-hartzearekin, barne-hauteskunde prozesua osoa gainbe-

Hautagai bakarra egonez gero, batzarra deituko da berretsi edo ez erabakitzeke; bestela, eztabaida prozesua irekiko da.

giratuko duen Hauteskunde Batzordea; %98,48ko babesa jaso zuen.

Orain, urtarrilaren 14tik 27ra alkategaiak proposatzeko epea irekiko da. Hautagai bakarra aurkezten bada, batzarra deituko da hautagaia berresteko edo ez. Aldiz, hautagai bat baino gehiago balego, hautagaien arteko eztabaida prozesua irekiko litzateke, eta ondoren, hautagaiaren

aukeraketa egin beharko litzateke.

Prozesuan parte hartzeko, [elkarrekin.ehbildu.eus](http://elkarrekin.ehbildu.eus) atarian izena eman behar dela gogorarazi du Astigarragako EH Bilduk.

### Herri programa lantzen

Bestalde, alderdiak gogorarazi du 2030ean nolako Astigarraga nahi den hausnartzeko bi saio egin dituela; «parte-hartze zabala izan zen, eta ikuspuntu eta ideia desberdinak konpartitzeko aukera paregabea izan zen». Hurrengo hila-beteetan, hauteskundeetarako zerrenda osatu bitartean, herri programa osatzeko lan-keta ere egingo dela jakinarazi du. ||

## GOIZUETA-ARANO PEDIATRA ZERBITZUA

# Pediatra zerbitzua bueltan, goizuetar eta aranoarrentzat

Asteazkenean berezarriko dute zerbitzua, herritarren eskaeren ondoren.

AZKEN hilabeteetako kexen ostean, goizuetar eta aranoarrek Goizuetan jasoko dute pediatra zerbitzua asteazken honetatik, hau da, etzitik aurrera, Goizuetako Udalak bando baten bidez jakinarazi duen moduan. Orain arte, Leitzara joan behar zuten.

### Zita, Osasun Etxean

Hori horrela, dagoeneko eskatu daiteke hitzordua, Goizuetako Osasun Etxean, bertara dei eginez: 948 510 800.

### Otsailetik, zerbitzurik gabe

Azkeneko asteetan Goizuetako eta Aranoko erabiltzaileek

azaldu bezala, «2018ko otsaila arte Leitzako osasun zentroan atxikituta zegoen pediatrak ematen zuten zerbitzua Leitzan, Lekunberrin eta Goizuetan. Data horretatik aurrera, zerbitzua kendu zuten eta larrialdietan Leitzara joateko agindu zieten». ||

## HERNANI BERTSOLATA



Beñat Gaztelumendi eta Maialen Lujanbio Sandiusterrin.

### Bertsolatari agur, jaialdiak

Maialen Lujanbio, Agin Laguru, Oier Lurramendi, Beñat Iguaran, Miren Artetxe eta Beñat Gaztelumendik eskainitako bertso jaialdiak esan zion agur 2018ko Bertsolatari abenduaren 29an. Sandiusterrin izan zen oraingoan, eta Aritz Zerainek, gai jartzaile lanetan, ariketetan jarri zituen bertsolariak. Jendeak gozatu ederra hartu zuen. ||

## HERNANI ESKU PELOTA



Paul Ojuel eta Urruzola atzo, txapelarekin.

### Altzako Torneoan txapelaren, Paul Ojuel

Hogeigarren urteurrena betetzen zuen honetan, bi hernaniarrek jokatuta zuten Altzako Torneoaren finala atzo aurrez aurre. Urruzolaren batera aritu zen Paul Ojuel, eta loritz Arrieta, aldiz, Santxex astigarrarekin. 22-16 irabazita, Ojuel eta Urruzolarentzat izan zen txapela, eta hernaniarra izan zen pelotaririk onena. ||

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzeko duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**JUAN MARI MAIZKURRENA URKIZU**

*Eskerrik asko, Juan Mari.*

**LUR, EKAI, ENARA ETA AXI**

Hernanin, 2019ko urtarrilaren 7an

**JUAN MARI MAIZKURRENA URKIZU**

'OKENDO'

*Erraza izan zen zu maitatzea, ezinezkoa, ordea, zu ahaztea.*

**EREÑOTZUKO KOADRILA**

Ereñotzun, 2019ko urtarrilaren 7an

**JUAN MARI MAIZKURRENA URKIZU**

*Bihotzean min dugu, min etsia, negar isila darion mina. Lagun bat genuen, Juan Mari, gaur, tamalez, aldegin.*

**OSIÑAGAKO AUZO ELKARTEA**

Hernanin, 2019ko urtarrilaren 7an

**JUAN MARI MAIZKURRENA URKIZU**

*Ixiltasunean izan dira zure lana eta bizitza, beti izango zara gure oroimenean eta bihotzean.*

**SAN JOAN KONPARTSA**

Hernanin, 2019ko urtarrilaren 7an

## IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)